

2007KO AZAROAREN 29KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko azaroaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola , Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko urriaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Alkateak hitza eman ondoren jendartetik Igortz Badiolak esaten du beraien iritzia emanez egindako interbentzioak aktan " jendartetik ... " jarri eta ordezkartzaren aipamenik ez egitea ez zaiela ondo iruditzen. Gehitzen du herriaren ordezkartza dela hemen dagoena eta horrela agertzea nahiko luketela.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.-ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZA LANEN 11. EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hamaikagarren egiaztagiria luzatu du. Hamaikagarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA BERROGEITA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEI EURO eta BERROGEITA LAU ZENTIMotakoa (146.860,44 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamaikagarren egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- ARERIA ERAIKINA ERAIKUNTZA LANEN 12. EGIAZTAGIRIA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen hamabigarren egiaztagiria luzatu du. Hamabigarren egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMASEI EURO eta HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMOtakoa (179.156,33 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen hamabigarren egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

V.- 10-12 HIRIGINTZA EREMUEN BARNE ERREFORMARAKO PLAN BEREZIA BEHIN BETIKO ONARTZEA.-

Bidezko izapideak bete ondoren, Lazkaoko Udalbatzak, 2007ko martxoaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako 10. HE eta 12. HE hirigintza-eremuen Barne Erreformarako Plan Bereziari behin-behineko onarpena ematea, eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, horrek behin betiko onar zezan.

Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapen Departamentuko titularrak emandako Foru Arauaren indarrez, Udal honi espedientea itzultzea erabaki da, behin betiko berrespenari buruz ebatzi dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean jarri ondoren ezarritako araubide berriaren ondorioz.

Izan ere, aipatutako legeak, 95. eta 97. artikuluetan, 3.000 biztanletik gorako udalerriei (Lazkao kasu) ahalmena ematen die xehetasunezko plangintza-dokumentuak behin betiko onartzeko. Ildo horretatik, 10. HE eta 12. HE hirigintza-eremuen Barne Erreformarako Plan Bereziari dagokion espedienteak berezitasun bat du. Izan ere, espediente hori aurreko araudia indarrean zegoen garaian hasi zen eta, horrenbestez, adierazitako 2/2006 Legearen bigarren xedapen iragankorrean jasotakoa aplikatu behar zaio, hots: "prozedurari dagokionez, xehetasunezko antolamendu-planak eta gainerako antolamendutresnak, lege hau indarrean jartzean behin-behineko onarpenik ez bazuten, lege honetan xedatutakoaren arabera behin betiko onartuko dira".

Horrenbestez, Udalbatzak dokumentu hori behin-betiko onartzeko erabakia 2007ko martxoaren 29an hartu zuenez eta data horretan Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko lege berria indarrean zegoenez, 95. artikuluan xedatutakoa aplikatuta, erabakia behin betiko onartutzat hartu behar da. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da erabakia zein egoeratan eta baldintzatan hartzen den. Gainera, izapidean zehar sartutako aldaketa guztiak bilduko dituen dokumentu baten beharra dago. Horregatik, komeni da bideratutako espedienteari behin betiko berrespena ematera mugatuko ez den zuzenketa egitea eta zuzenketa hori zabaltzea, dokumentu osatua egin eta eskura izateko beharra ezarrita.

Azaldutakoaren arabera, Udalbatzak, bertaratutako kide guztien aldeko botoarekin, erabaki hau hartu du:

LEHENIK.- Udalbatzak 2007ko martxoaren 29an egindako bilkuran hartutako erabakia berrestea, horrek 10. HE eta 12. HE hirigintza-eremuen Barne Erreformatarako Plan Bereziari behin betiko onarpena ematen diola ulertuta.

BIGARREN.- Espedientea bideratzean egin diren aldaketak eta zuzenketak kontuan izanda, tresna bakarra eskura izatearren, idazle-talde teknikariak dokumentu bat egin beharko du. Dokumentu horrek 2006ko maiatzaren 8an Udalbatzak hasiera batean onartutako proposamenaren aurreikuspenak bildu beharko ditu eta, gainera, beste aurreikuspen hauek ere sartuko ditu:

- 2006ko ekainaren 29an hartutako behin-behineko onarpen-erabakiaren baldintzak.

- 2007ko otsailaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakian adierazten diren zuzenketa-arazoak, "Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa, 10.-12. HE hirigintza-eremuari dagokionez" izeneko espedienteari behin betiko onarpena emanda.

- Plan Bereziari buruzko zuzendutako dokumentazio osagarria, Foru Aldundiko bide-azpiegituretarako Departamentuan aurkeztutakoa, eta 2007ko otsailaren 13an aldeko txostena ematea ekarri zuena; eta txosten horretan jasotako baldintzak.

VI.- 2006KO KONTU OROKORRA.-

2006 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Berezian aurkeztu zen, 2007ko urriaren 1ean egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2007ko urriaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Ondoren 2006ko Kontu Orokorrak hau berriro Kontuetaarako Batzorde Bereziak aztertu eta informatua izan da 2007ko azaroaren 26ko bilkuran.

Hau honela, dagokion legeriak dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2006 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

VII.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 4 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beste baterako dokumentazioa zinegotzi guztiei bidaltzea eskatuko lukeela, ze berak bazuela hazienda batzordean eman zelako, baina ez horrela bere taldeko bere lagunek. Gaineratzen du, ohikoa duten erizpidearekin jarraituz eta aurrekontua eztabaidatzen denean, orokorrean aurrekontuarekin beraien ez adostasuna agertzen badute ere, ados egon ohi izaten direla inbertsioetako kapituluarekin eta beraz kreditu aldaketa honen alde egingo dutela.

Eztabaidatu ondoren, eta guztien adostasunarekin, honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	139.100,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		139.100,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
IV	Sarrera handiagoak: Transferentzia arruntak	139.100,00 €
GUZTIRA		139.100,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VIII.- 2008KO AURREKONTUA.-

Ondoren 2008 ekitaldiari dagokion aurrekontua aurkezten da bere onarpenera. 2008ko udal aurrekontuak Udala beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkar-tearen aurrekontua hartzen ditu bere barne.

Alkateak onarpenera aurkeztutako aurrekontuaren azalpena egiten du, inbertsioen partidak jartzerakoan jarraitutako erizpideak zein izan diren adieraziz eta hauek banan banan azalduz. Erizpideak, esaten du, hiru izan dira: 1) lehengo proiektuei aurre egitea; 2) dirulaguntza izan dezaketen inbertsioei lehentasuna ematea; eta 3) legegintzaldian garatu daitezken proiektuen erredakziorako dirua jartzea. Azken hauei buruz, gaineratzen du, datozen ogasun batzordeetan zehaztuko da proiektu hauen lehentasun zerrenda zein izango den. Esaten du baita ere Aurrekontu exekuziorako udal arauetan ez dela iazkoareki-ko aldaketarik sartu.

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du aurrekontua politikoki zehazten duten hainbat partidekin ez daudela ados baina bestalde inbertsioen kapituluak dauden proiektu gehie-nak PSOE historikoki aldarrikatzen aritu den proiektuetakoak direla eta horregatik ezin dutela aurka bozkatu eta ondorioz abstenitu egingo direla.

Jendartetik eta alkateak hitza eman ondoren, Igortz Badiolak esaten du beraiek ez daudela ados goi karguen ordainsarien partidarekin ze batzu kobratuz ari dira eta beste batzuk ezer gabe eta sarrerak ikusita eta sarrera horien zati handi bat herritarrek ordain-tzen dituztela eta aurkitzen gerala ba betebeharrak bai eskubiderik ez eta beraz demokra-zia zero.

Moreno zinegotziak (PP) esaten du abstenitu egingo dela.

Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du alde bozkatuko duela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ, EB-B), aurkako boturik gabe eta sei abstentzioz (PSE, PP, Inazio Estensoro eta Inazio Barandiaran), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2008 urterako udal aurrekontua haserako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

2008KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	1.329.400 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	102.300 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	923.450 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.458.500 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	20.000 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ-	13.000 €

VIII	KAPITULUA	TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
------	-----------	--	---------

<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>5.847.650 €</u>
-------------------------------	--------------------

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.013.450 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	2.781.300 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	81.100 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	417.100 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.280.000 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	135.700 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	138.000 €

<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>5.847.650 €</u>
------------------------------	--------------------

2008KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	1.644.753 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.383.586 €

<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>3.028.339 €</u>
-------------------------------	--------------------

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	147.482 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	42.600 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.838.257 €

<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>3.028.339 €</u>
------------------------------	--------------------

2008KO UDALAREN AURREKONTU KONTSOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.329.400 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	102.300 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	923.450 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.458.500 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	20.000 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK	1.657.753 €

		ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ-TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.383.586 €
		SARRERAK GUZTIRA	8.875.989 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.013.450 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	2.928.782 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	123.700 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	417.100 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	4.118.257 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	135.700 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	138.000 €
		GASTUAK GUZTIRA	8.875.989 €

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

IX.- 2008KO PLANTILLA ORGANIKOA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkez da bere onarpenerako 2008rako Udal Langileen Plantila Organikoa, bere espedientean aurkitzen dena.

2007ko plantillarekiko ez dago aldaketarik.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, 2008rako Lazkaoko Udala-ren plantila organikoa, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

X.- 2008KO LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako 2008rako Udal Langileen Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen dena.

2007ko lanpostuen zerrendarekiko ez dago aldaketarik.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, 2008rako Lazkaoko Udala-ren Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean dagoena, onartu egiten du.

XI.- TAXIEN HIRI TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2008 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa bidali dute baita ere.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA					
1 TARIFA (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA (gauezko eta jaiegunetakoa)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
2,8697	0,8996	17,1872	2,8697	1,4348	27,0085

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du udal tasak onartzerakoan mantendutako erizpide bera mantenduko dutela eta igoera hau K.P.I.ren aldaketaren araberakoa denez, alde bozkatuko dutela.

Guzti hau kontutan izanda, gaia azertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2008 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA					
1 TARIFA * (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA ** (gauezko eta jaiegunetakoa)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
2,94	0,9204	17,58	2,94	1,4679	27,63

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 21:00etara aplikatuko da

** Tarifa hau lanegunetan 21:00etatik 7:00etara eta jaiegunetan aplikatuko da.

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

XII.- GOIEKIKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN OSAKETA.-

Aurreko Osoko Bilkuran gai honen inguruan onartutako proposamenean akatsa zegoela eta, berriro ekartzen da Osoko Bilkurara behin proposamena zuzendu eta gero.

Goierriko Ekimena, S.A. -GOIEKI- Goierriko Udalek osatutako Elkarte Anonimoa da eta beraz Goierriko Udaletako zinegotzi guztiak osatzen dute.

Hau honela izanik eta azken udal hauteskundeen ondoren, GOIEKIkko administrazio kontseilu berria aukeratzea egokitzen da, eta GOIEKIkko estatutoek diotena jarraituz, kontseilu honetako partaidetza hauteskundeen emaitzen arabera izango da alderdi politiko ezberdinen artean. Bestalde alderdi politikoek adostasunera iritsi dira Administrazio Kontseilu honetan alderdi guztiek ordezkatuak egon daitezen.

Hau kontutan izanik, alderdi politiko ezberdinen artean administrazio kontseilua osatzeko zerrenda bat adostu da eta zerrenda hau da gaur Osoko Bilkura honen aurrera ekartzen dena bere onarpenerako.

GOIEKIkko administrazio kontseilua osaketa proposamena honako hau da:

<u>ALDERDIA</u>	<u>HAUTATUAK</u>	<u>HERRIA</u>	
EAJ-PNV	Patxi Plazaola Muguruza	BEASAIN	
EAJ-PNV	Patxi Albisu Estensoro	LAZKAO	
EAJ-PNV	Jose Miguel Santamaria Ezeiza	ORDIZIA	BOTURIK GABE
INDEPENDIENTEA	Bittor Oroz Izagirre	ATAUN	
INDEPENDIENTEA	Jon Intsausti Ugalde	ORMAIZTEGI	
INDEPENDIENTEA	Mikel Areizaga Camara	SEGURA	BOTURIK GABE
INDEPENDIENTEA	Edurne Albizu Ormazabal	ZEGAMA	
PSE	Fernando Boada Gonzalez	BEASAIN	
PSE	Iñaki Dubreuil Churruca	ORDIZIA	
EB/ARALAR	Maialen Galparsoro Odriozola	ORDIZIA	
EB/ARALAR	Patxi Aierbe Urbiztondo	ZALDIBIA	
EAE/ANV	Xabier Iturrioz Oiarbide	ITSASONDO	BOTURIK GABE
EAE/ANV	Iñaki Oiarbide Munduate	LEGORRETA	
PP	Julio Herreros Serna	BEASAIN	

Bestalde Administrazio Kontseilu hau onartuko duen Batzar Nagusirako udal ordezkaria Patxi Albisu Estensoro, Alkatea, izatea proposatzen da.

Osoko Bilkurak, aho batez, GOIEKiko administrazio kontseilua osatzeko proposatutako zerrenda hau onartu egiten du eta GOIEKIn egingo den Batzar Orokorrerako Lazkaoren ordezkaria Patxi Albisu Estensoro izendatzea erabakitzen du.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia aretotik irten egiten da.

XIII.- LAZKAOKO UDALAREN ORDEZKARIAK TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUAN.-

Udal antolaketa eta parte hartzen duen erakundeetan ordezkariak izendatzeko egindako batzarraldian, Osoko Bilkurak, Tolosako Hiltegi Mankomunatuan ordezkari gisa Patxi Albisu Estensoro Alkatea izendatzea erabaki zuen. Ordea, 5.000 biztanle baino gehiago izanik, Lazkaori 2 ordezkari dagozkio eta beraz, hau honela izanik, nekazaritza batzordearen presidentea den Inazio Barandiaran Aldasoro izendatzea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du udal antolaketako osoko bilkuran esan zuten bezala, gai hauek direla gobernuak eginkizunak elkarbanatu edo beste alderdi batzuei leku egiteko asmorik duen ala ez azaltzeko moduko gaiak; esaten du bestalde ez zaiela ezta jakinarazi ere egin zein izan behar zuen izendatu behar zen pertsona eta guzti horrengatik aurka bozkatuko dutela.

Jendartetik eta alkateak hitza eman ondoren, Igortz badiolak esaten du herriak eman gabeko ordezkaritza batetatik abiatzen gerala eta beraiek proposamenaren aurka daudela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EB-B), aurkako 3 botu (PSE-EE) eta 2 abstentzioz (PP eta Inazio Barandiaran) proposamena onartu egiten du.

XIV.- TOKIKO GOBERNU BATZORDEAN ETA BATZORDE INFORMATZAILEETAN ALDAKETAK.-

Alkateak esaten du Ezker Batuarekin gobernu itun bat adostu dutela eta horren ondorioz aldaketa batzuk egin dituela. Aldaketak honako hauek dira: Tokiko Gobernu Batzarraren eraketa aldatu egiten da, Xabier Arrasate Aierbe zinegotzia kanpora eta Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia barrura sartzen delarik. Eta alkateordeei dagokienean, Xanet Barreras Jauregi lehen 3. alkateorde zena orain 4. alkateorde izendatzen da eta 3. alkateorde Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia izendatzen da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Honez gain eta gobernu itun honen ondorioz baita ere aldaketa batzuk planteatzen dira batzordeetan. Gehitzen du dena den, aldaketa hauek udalerentzat ekonomi zama handiagorik suposa ez dezaten, EAJk batzorde bateko presidentziari dagokion ekonomi asignazioari uko egingo dio. Hau esan ondoren, gehitzen du, planteatzen dena honako hau da: Ingurugiroa eta Garapen Jasangarria izenburupean batzordea sortzen da, batzorde honen buru Iñaki Saldaña Herrero zinegotzia izango litzakelarik; bestalde Zerbitzuen arloa Hirigintza Batzordean egotetik Nekazaritza Batzordean egotera pasako da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du abstenitu egingo direla.

Moreno zinegotziak (PP) esaten du abstenitu egingo direla.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, EB-B), aurkako boturik gabe eta 6 abstentziaz (PSE-EE, PP eta Inazio Estensoro eta Inazio Barandiaran) proposamenak onartu egiten ditu.

XV.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INGURUKO MOZIOA.-

Alkateak esaten du eguneko gai zerrendan sartutako mozioaren aurkezlearekin adostu ondoren honen ordez jarraian irakurriko den adierazpen instituzionala tratatzea planteatzen dela.

Iñaki Saldaña zinegotziak (EB-B) esaten du bera izanik mozioaren aurkezlea, alkateak esandakoa berresten duela.

Adierazpen instituzionalak honela dio:

“AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INZTITUZIONALA - EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Lazkaoko Udalak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

Jakin badakigu emakumeen kontrako biolentziak kontzientzia kolektiboan sakonki errotutako jokabide-eredu soziokultural batean oinarrituta dagoela. Neska eta mutilak gizarteratzeko modu desberdinean du jatorria non eratzen, igortzen, barneratzen eta adierazten diren generoaren rola eta estereotipoak, eta, aldi berean, biolentziaren beraren legitimazio sozial eta kulturalen prozesuen bidez indartzen den. Biolentzia ohori desagerarazteko, ahal denik eta azkarren eta nahitaez bereizi behar dugu maskulinitatearen eta feminitatearen zenbait ereduren ikasketa emakumeen kontrako biolentzia erabiltzetik eta/edo legitimatzetik, eta, horretarako, berdintasunerako hezkuntzan, berdintasunean oinarritutako harreman afektibo osasuntsuen sustapenean eta pertsona autonomo, aske eta berdinen garapen integralean oinarritutako irtenbideak planteatu behar ditugu.

Aurten, neska nerabeen kontrako biolentziazko harremanetan jarri nahi dugu arreta, izan ere, sektore hori sarritan ahazten dugu arlo honetan garatzen ditugun ekimenetan. Gainera, azken azterketek erakusten dutenez, biolentzia sexista jasaten duten emakumeak gero eta gazteagoak dira. Biolentzia hori, besteak beste, beldurraraztearen, eraso fisikoaren edo abusuaren bidez gauzatzen da, baina baita modu finagoen bidez ere, esate baterako, isolamenduaren bidez, txantaje emozionalaren bidez, manipulazioaren bidez, erasoaren bidez, gutxietsiz eta, batez ere, biktima kontrolatuz. Metodo horiek antzematen zailagoak dira neska eta mutil gazteentzat harreman afektiboetan.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal po-

litika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarritz neska gazte eta nerabeen kontrako biolentzian, beraien partehartzea aintzat hartuta."

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, guztien adostasunarekin, adierazpen instituzionala onartzea erabakitzen du.

XVI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du orain dela hiru osoko bilkura San Joseko 21etik 26 edo 27ra dihoazten eraikinen atzekaldeetako gunearen garbiketari buruz galdetu zuela, eta zehazki atzekalde hartan dagoen terreno partikular bati buruz. Gehitzen du hiru hilabete beranduago egoera berbera dela eta jakin nahi dutela ea gobernu taldearen aldetik egoerari irtenbiderik emateko inolako kudeaketarik egin den eta egin ez bada ea egiteko asmorik ba al dagoen. Gehitzen du asmorik ez baldin badago, ziurrenera hurrengo osoko bilkuran mozioaren bat aurkeztuko luketela gai hau konpontzeko.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du azken egun hauetan egin ahal izan diren kudeaketak ezagutzen ez baditu ere, berak azken zortzi urteetan izandako esperientziaren arabera lursail hori garbitzeko zailtasun handiak daudela, lursail horren jabea eta jabe horrek udal honekin daukan harremana dela medio. Esaten du baita ere, harreman hori kontutan izanda, behar bada bertako bizilagunek izenpetutako idatzi bat bidaltzea eraginkorragoa litzatekela lortu nahi dena lortzeko, dena dela udalaren aldetik saikuntza egiten jarraitu beharko dela.

Moreno zinegotziak (PP) galdetzen du hemen jendea dagoela legez kanpo parte hartzen ari dena, eta ea hau noiz arte jasan behar duten. Gehitzen du egoera honen aurrean Alderdi Popularretik epai bideari helduko diotela.

Urkola zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez Arautegi Organikoan oinarrituta ari dela jarduten eta ez alkatearen erizpidei arbitrarioen arabera eta hitza bozketa bidez osoko bilkura honek erabakitakoan oinarrituta ematen zaiela.

Saldaña zinegotziak (EB-B) erantzuten dio Moreno zinegotziari esanez hemen ez dagokion espazioa betetzen duen bakarra bera dela.

Moreno zinegotzia altxatu eta alde egiten du.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du eztabaida gehigotan sartu eta gehiago sutu nahi gabe, Moreno zinegotziak dagoen lekuan egoteko adina botu lortu zituela indarrean dagoen legediaren arabera.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.